


Gasa, natural-natural

Hogei urte dira Euskal Herrian lehen aldiz gas naturala jarri zela. • Ordutik, gas naturalaren erabiltzaile kopurua nabarmen igo da; eta azpiegiturak hobetu



■ Gaur egun, hiriburuetako ia etxe guztiak balia daitezke gas naturalaz, nahi izanez gero.

Hainbat kilometro hodi

1999an, 249 kilometro zituen gas naturalaren hodi sareak Bilbon. Gaur egun ia 42.000 etxetan sartzen da gasa, aurreko urtean baino 6.558 etxebizitza gehiagotan; eta hiria inguratzen duten mendien magaletan diren etxe solte horietara izan ezik, gai-nontzeko bazter guztietara hel daiteke energi iturri hori.

Bost urte daramatza Bilbogas zerbitzuak Bilbon, eta denbora horretan hasierako asmo guztiak gainditu eta areagotu egin direla aitortu dute bertako arduradunek. Sarea zazpi urtetan osatzea zen hasierako asmoa. Denbo-

ra horretan 214 kilometro hodi jarri behar zituzten hiritarrari gas zerbitzua egokia bermatu ahal izateko.

Lanean hasi eta bi urte eta erdira, sarearen %90 egin zegoen. Lanak azkartu, zerbitzua aurreratu eta kilometroak ere areagotu egin zituzten. Urtero, batez beste, zortzi kilometro gehitzen zaizkio sareari. Arestian aipatutako 42.000 bezero horiek zera islatzen dute: gutxi gorabehera 140.000 bilbotar baliatzen direla gas naturalaz -merkatuaren %35 inguru da hori-, eta urteroko hazkundea %53koa da.

URTETIK urtera asko ari da igotzen gas naturalaren energia kontsumoa. Duela 20 urte Gasteizen hasi ziren gas naturala erabiltzen, lantegietan hasieran eta etxebizitzetan gero. Ordutik gas naturalaren arrakasta izugarria izan da. Lurralde bakoitzean erakunde edo enpresa zehatz bat egiten da kargu gas naturalaz. Enpreson garapenak eta bezeroen kopuruak gora egin dute; datuak aztertzea besterik ez dago. Izan ere, gas na-

turalak erosotasuna eta garbitasuna eskaintzen du, besteak beste.

■ Donostian barrena garatuz

DonostiGas gas naturala banatzen duten elkarteetako bat da. Enpresa horrek Donostian eta inguruko herrietan jartzen du gasa, eta azken urteotan garapen nabarmena izan du. Esaterako, 1996an, Donostian 40.000 gas natu-

ralaren erabiltzaile zituen; gaur egun, berriz, 50.000 inguru dira bezeroak. Gonzalo Subijana DonostiGas enpresako zuzendariordearen esanetan, «aurreko urtearekin alderatuz gero, gas naturalaren salmentak %30 egin du gora Donostia aldean».

Garai batean gas manufacturatua eta naturala banatzen zituen enpresa horrek, baina gaur egun gas naturala baino ez dutela banatzen azpimarratu du; «1998ko mar-

txoan gas manufacturatua egiten genuen lantegia itxi eta ordudunik gas natural banatzen dugu soilik». Eskaera handiari aurre egiteko hartu zuten erabaki hori.: «Indar handiagoa du gas naturalak etaxkoko guztietara heda daiteke. Gainera garbiagoa da, eta ez da toxikoa».

■ Merkea eta garbia

Gasteizen hasi ziren gas naturala erabiltzen, 1980. urte

inguruan, eta berehala zabaldu zen Euskal Herriko beste txoko guztietara. Energia merkeagoa eta garbiagoa da, eta beste erregai fosilek baino gutxiago kutsatzen du.

Gas naturala erregai fosiletatik lortzen da, eta petrolioak dagoen lekuetan egon ohi da. Metano eta antzeko osagai gehiago ditu, eta beste erregai fosilek baino CO2 gutxiago sortzen du: ikatzak baino %40 gutxiago, eta petrolioak baino %30. Horretaz gain,

"Nere berogailuarentzat energi garbi eta ekonomikoa daukat"



GasHernani

Gudari enparantza z/g
Tel.: 943 33 09 28
20120 Hernani



DonostiGas

Errondo gaineko bidea, 2
Tel.: 943 45 50 90
20009 Donostia

TOLOSA GASA

Arostegieta, 13 - beheak
Tel.: 943 65 53 20
20400 Tolosa



Gas Pasaia

Euskadi etorbidea, z/g
Tel.: 943 39 57 86
20110 Pasaia